

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 44/2017 Foru Dekretua, abuztuaren 3koa, aldatzen duena otsailaren 9ko 13/2016 Foru Dekretua, Gizarte Zerbitzuen Sailaren egitura organikoa eta funtzionalari buruzkoa

Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 13/2016 Foru Dekretuak Gizarte Zerbitzuen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu zituen.

Otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onarenak, bere bigarren xedapen gehigarriko 2. puntuari ezartzen duenez, sailaren egitura organikoa eta funtzionalari buruzko dekretuek zehaztuko dute zein administrazio unitatek hartuko duten foru arau honetan ezarritako eginkizunen ardura.

Hortaz, Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 13/2016 Foru Dekretua, onartzen duena Gizarte Zerbitzuen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala, egokitu behar da otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onarenak, xedatutakora.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea Gizarte Zerbitzuen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 13/2016 Foru Dekretuaren 6. artikuluko 7. eta 8. zenbakiak. Honela idatzita geratuko da:

"6. artikulua. Administrazio unitateetako arduradunen eginkizun orokorrak

7. Ahalik eta laguntza gehiena ematea otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onarenak, loturik dauzkan eginkizunak bere gain hartzen dituen zuzendaritzaren administrazio unitateari"

8. Erregelamendu organikoetan eta foru aldundiaren erabakietan bere gain uzten diren bestelako eginkizunak betetzea."

Bigarrena. Aldatzea Gizarte Zerbitzuen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen dituen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 13/2016 Foru Dekretuaren 9. artikuluko 24. eta 25. zenbakiak. Honela idatzita geratuko da:

"9. artikulua. Gizarte Zerbitzuen Idazkaritzako Zerbitzua

24. Politika publikoen, gardentasunaren eta herritarren parte hartzearen ebaluazioa kudeatzea, sailaren eskumeneko arloetan, 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onarenak, xedatzen duen moduan. Halaber, arlo horietan izapideak egiteaz arduratuko da, sail honi atxikitako foru sektore publikoko erakundeei dagokienez.

25. Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak bere eskumenen esparruan agitzen dizkion beste eginkizun batzuk."

Hirugarrena. Foru dekretu honek bere onarpenaren hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratzen den eguna edozein dela ere.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abuztuaren 3a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua

M. ANTONIA OLABARRIETA IBARRONDO